



www.ornitho.eus



3. Zenbakia. 1. Seihilekoa, 2018

Ornitho Berriak

www.ornitho.eus



3. Zenbakia

1. Seihilekoa, 2018

Ornitho Berriak

www.ornitho.eus

Atalak

- 4 Aipamen nabarmenduak
- 10 Zer berri
- 12 Laster ornithon...
- 13 Proiektuak
- 14 Protagonistak
- 17 Nire mini-gida



www.ornitho.eus





www.ornitho.eus



ORNITHO BERRIAK

3. Zenbakia. 1. Seihilekoa, 2018

ISSN: 2530-9358 Donostia / San Sebastián

Argitalpen Batzordea: Juan Arizaga, Maite Laso, Nere Zorrozueta, Beñat Díaz

Argitaratzailea: Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostia - San Sebastián
(<http://www.aranzadi.eus/category/ornitologia>)

Esteka: http://www.ornitho.eus/index.php?m_id=20016&lang=es

Kontaktua: ornitho@aranzadi.eus

www.ornitho.eus plataforman laguntzen duten erakundeak



Aipamen nabarmenduak



Elano urdina

Elano urdina Elanus caeruleus, harrapari txiki nahasezina bat da. Iberiar penintsularen mendebaldean aurkitu ohi da, nahiz eta azken urteetan bere banaketa eremua iparralderantz eta ekialderantz hedatzen joan den.



Euskadin “ezohiko” moduan katalogatu du Euskal Batzorde Ornitologikoak. 2005ean lehenengo aldiz elano bikote baten ugalketa baieztatu zen Araban. 2018an urtarriletik

aurrera ale bat ikusi da Oruetako hezegunean, Urdaibain. Horrez gain, espeziea Azpeitian (A. Galdos), Hernanin (E. Alkorta), Zarautzen (A. Carriel) eta Gasteizen (J.A. Gainzarain) ikusi da.



Shutterstock



EAEko Hegazti Habiagileen Atlasa proiektuaren barruan, hegazti gautarren zentsu espezifikoak egiten ari dira. Hauetako batean, I. Zuberogoitiak tengmalm hotzaren *Aegolius funereus* ale bat gutxienez hauteman zuen Gorbeian, Euskadirentzat espezie honen lehenengo aipamena izanik. Zehazki, bi aipamen lortu ziren, bat urtarrilean eta bestea otsailean. Espezie hau bertakoa da Pirinioetan, batez ere Katalunia aldean, hangoa izanik Espainiako ugalketa gune

nagusia. Altuera handian dauden konifero baso zaharrei lotua dago. Aldiz, Euskadiko aipamena pagadi batean lortu zen. Espezie hau gure eremuan orain azaltzearen arrazoia aurretik berau detektatzeko ahaleginik egin ez izana izan daiteke edo noizean behingo kasu bat izatea. Izan ere, tengmalm hontzak ugalketa sakabanaketa oso altua izan ohi du eta batzuetan ohiko banaketa eremutik urrundutako lekuak okupatzen ditu.



Apo pikarta

Apo pikarta Pelodytes punctatus apo txiki bat da, normalean 40 mm baino gutxiago duena. Frantzian, Italia ipar-mendebaldean eta Iberiar penintsulan du banaketa eremua.



Iberiar penintsulan hainbat erkidegotan azaltzen da eta Euskadin soilik Araban ikusi ahal dugu. Hemen, apo pikarta nahiko ohikoa da nahiz eta bere populazioak ez izan oso handiak. Hau dela eta, espezie honen aipamen gutxi lortzen dira Euskadin. 2015etik G. Garciak hainbat aipamen bildu ditu Navaridasen (Araba). 2018an soilik ale baten aipamena jaso dugu, martxoaren 16an

behatzaile ezezagun batek ikusia (Navaridasen) eta www.ornitho.eus plataformara G. Garciak igoa. Honekin, espezie honen aipamen guztiak jakinaraztera bultzatu nahi zaituztegu, espezie honen kontserbaziorako behar beharrezkoa baita bere banaketa eremua ezagutzea. Behatutako ale edo populazioa egoera zaurgarrian badago aipua “ezkurtuko datua” bezala igotzea gomendatzen dugu.



uhandrea

*Gailurretako uhandrea Ichthyosaura alpestris
Europako anfibio bat da Iberiar penintsulan
soilik Kantauri itsasoko ertzean azaltzen dena.*



Espezie hau Espezie Mehatxatuen EAEko Katalo-
goan ageri da Zaurgarri egoeran. Izan ere,
Euskadiko populazioak bakanak dira eta isolatze
maila bat dago euren artean. Beraz, espezie
honen behaketak oso interesgarriak dira. Seihileko
honetan soilik 14 indibiduo behatu dira, guztiak
Bizkaian: Orozkon eta Zeanurin U. Ibañezek eta
S. Gallegok Diman.




Shutterstock

Hemaris tityus tximeleta gautar bat da Paleartikoan banaketa zabala duena. Errusiako ekialdeko kostatik iberiar penintsularaino eta Afrika iparralderaino aurkitu daiteke. Iberiar penintsulan iparraldean ageri da gehienbat, baina badira kolonia isolatu batzuk penintsularen erdialdean eta hegoaldean.



Espeziea oso arraroa ez izan arren, Euskadin oso aipu dokumentatu gutxi ditugu. www.ornitho.eus atarian espezie honen aipamen bakarra dago, ekainaren 3koa, I. Novoak Labastidan (Araba) hartua.



Shutterstock

Endromis versicolora

Endromis versicolora *Endromidae* familiako tximeleta gautar espezie bakarra da Europan. Kontinentearen iparraldean da ohikoena eta Iberiar penintsulan Pirinioen mendebaldean eta Kantauriar mendilerroan ageri da.



Aurrez aipatu dugun *Hemaris tityus* tximeleta bezala, espezie honen oso aipu gutxi daude Euskadin. Beraz, tximeleta honen behaketa guztiak dira interesgarriak. Berriz ere I. Novoa izan da espezie honen aipamenak egin dituenak. Apirilekoak dira biak, Mañarian (Bizkaia) eta Oñatin (Gipuzkoa) eginak.

Zer berri



shutterstock

Harrapatutako urubia

Erregistratu hemendik aurrera hildako edo zauritutako animalien aipamenak

Martxoan zehar hildako edo zauritutako animalien aipamenak sartzeko modulu berri bat eskuragarri jarri zen. Behaketak sartzeko formulario estandarrean topatuko duzu, "Beste datu/informazio batzuk" atalean.

Modulu hau erabiltzean, Euskadiko faunaren heriotza puntu nagusiak identifikatzen lagunduko duzu eta baita bere kausak ere. Informazio honek berebiziko garrantzia du Administrazio Publikoek kausa ez-naturalengatik gertatutako faunaren heriotzak murrizte aldera neurriak hartu ahal izateko.

Araknido eta koleopteroak

Maiatzean bi talde berri zabaldu ziren: araknidoak (armiarmak eta opiloiak) eta koleopteroak (kakalardoak). Biak talde oso zabalak dira, milaka espezierekin eta kasu askotan identifikatzen oso zailak direnak. Arrazoi honengatik, oraingoz espezie gutxi batzuk baino ez ditugu jarri eskuragarri irekitako taxoi berri hauetan. Kasu guztietan identifikatzeko errazak diren espezieak izango dira. Haietako batzuk mehatxatuta daude edo bertako basoen kontserbazio egoeraren bioindikatzailerik gisa interesa dute, adibidez arkanbelea edo beste intsektu saproxiliko batzuk.

Zer berri



shutterstock

Rosalia alpina

Araknidoen kasuan, eskuragarri dauden espezieak hauek dira:

- *Uroctea durandi*.
- *Araneus diadematus*.
- *Argiope bruennichi*.
- *Argio pelobata*.

Koleopteroen kasuan, eskuragarri dauden espezieak hauek dira:

- *Cerambyx cerdo*.
- *Rosalia alpina*.
- *Lucanus cervus*.

Hurrengo hilabeteetan zerrenda zertxobait hedatuko da eta, aldi berean, eskuragarri dauden espezieak identifikatzeko gida bat emateko lan egingo da. Bestalde, bi talde hauetako batean esperientzia duten erabiltzaile eta erakundeak "aditu moduan" alta emateko aukera dago, honek espezie kopuru zabalago baten aipamenak sartzea baimenduko die. Gainera, edozein erabiltzaile talde hauen aipamen zaharrak sartzera gonbidatuta dago. Honi buruzko informazio gehiagorako, ornitho@aranzadi.eus-ekin harremanetan jarri.

Laster ornithon...



Shutterstock

Amilotx urdinak eta buztanluzeak jantoki batean

Hegaztiak eta lorategiak

Badira jada hilabete batzuk jantoki eta lorategiak altan emateko modulu bat daukagula. Hurrengo udazkenetik aurrera zure jantoki edo lorategia altan ematera animatzen zaitugu, eta berau bisitatzen duten espezie ohikoenen behaketak partekatzen. Tresna bikaina da ornitologian hasi berriak diren pertsonentzat, batez ere haur eta eskola-umeei zuzenduta sortu delarik.

Jantoki bat sortzeko hurrengo estekan klikatu behar duzu:

https://www.ornitho.eus/index.php?m_id=1401

Dena den, zalantzarik izanez gero, zure esku gaude ornitho@aranzadi.eus-en.

Proiektuak



Bioblitz Euskadi

Pasa den ekainaren 9an Euskadiko lehenengo Bioblitz antolatu zen. Bioblitz bat leku eta denbora zehatz batean ahalik eta espezie gehien identifikatzea helburu duen ekimen parte-hartzaile bat da. Orain arte Euskadin ez zen inoiz Bioblitz bat antolatu. 2018ko edizioa Ametzagainako Parkean egin zen, Donostiako hiriaren kanpoaldean dagoen parke bat. 38 ha-ko azalera du eta hiriko parkerik handiena da. Bertako baso hostogalkor azalera garrantzitsua du, batez ere haritzek osatua dagoena. Baso ez diren eremuak, gehienbat, larreek hartzen dute. Guzti honengatik, gaur egun Ametzagainako Parkea udalerriko hiri eremu barruan topa daitekeen basa bizitzaren babesleku nagusietako bat da. Laginketan Mikologia, Botanika, Entomologia, Herpetologia, Ornitologia eta Mastozoologia

alorretako hainbat adituk parte hartu zuten, ehun hiritar baino gehiagok gain, espezieen bilaketan adituei lagundu zietenak. 24 orduko laginketa eta gero, 172 espezie hauteman ziren, nahiz eta euria gogoz erori zen egunaren parte batean zehar. Aipamen hauetako gehienak www.ornitho.eus-en sartuta daude. Egun honetako emaitzak jasotzen dituen txostena hurrengo estekan kontsultatu daiteke <http://www.aranzadi.eus/fileadmin/docs/anillamiento/Ornitho/Bioblitz2018.pdf>. Aipamen guztien artetik nabarmentzekoa da *Trichoderma tremelloides* espeziearena, orain arte Aranzadiren herbarioan agertzen ez zen onddoa. Aipamen hau ziurrenik Euskadirako lehenengoa izango da eta baliteke Penintsularako ere hala izatea.

Protagonistak



Serafín Alarcón

Serafín Alarcón www.ornitho.eus atarian aipamen gehien sartzen duenetako bat da. Pasa den udaberriko egun batean berarekin geratu ginen Boluen (Getxo) www.ornitho.eus plataformaz egiten duen erabilerari buruz hitz egiteko.



- **Noiz hasi zinen faunari buruz interesa izaten?**

– Txikia nintzenean, "El Hombre y la Tierra" ikusten. Gero zortea eduki nuen banituelako lagunak, kuadrilan, interes berdina zutenak eta mendira joaten ginen txoriak behatzera. Hasieran orrialdeko gida batekin ateratzen ginen eta beranduago gauzak erosten hasi ginen.

Hegaztiekin hasi nintzen eta gero gainontzekoa etorri zen. Zugaztietara joan ohi ginen, hurbil zeuden lekuetatik hoberen zegoenetakoa zen eta erreza zen heltzea, kotxerik ez genuen eta.

- **Zein momentu aprobetxatzen duzu fauna behatzera joateko?**

– Tarte bat daukadanean atera ohi naiz. Denbora gutxi baldin badaukat bizi naizen inguruan geratzen naiz, denbora gehiago badaukat pixka bat urrunago joaten naiz. Orain justu lanetik atera berri naiz.



- **Nola uztartzen duzu faunaren behaketa zure eguneroko zereginekin?**

– Zaila da. Batzuetan, arratsaldean lan egitea tokatzen zaidanean, goiz altxatu ohi naiz eta 8:00 edo 9:00ak inguru Arraizerantz abiatzen naiz, edo kotxea hartu eta pixka bat urrunago joaten naiz. Egia esan, libre dudan edozein tarte balio zait, beti ere meteorologia ez denean oso txarra edo beste betebeharrak batzuk ez ditudanean.

- **Astean zenbat aldiz joan ohi zara fauna behatzera?**

– 3-4 bat aldiz, batzuetan gehiago, besteetan gutxiago. Negu honetan, meteorologiari dagokionez pixka bat gogorra izan dena, pixka bat gutxiago joan naiz.

- **Zein talde taxonomiko interesatzen zaizkizu gehien?**

– Ni hegaztiekin hasi nintzen. Orain, garai ona heltzen denean, udaberri-uda, burruntsi eta tximeletekin hasiko naiz, orain gehien horiekin aritzen naiz eta. Baina beno, sugandila edo azeri bat ikusten badut, idazten dut ere bai. Baina, batez ere, ni hegaztienaz naiz.

- **Noiz eta nola hasi zinen talde bakoitzarengatik interesa izaten?**

– Lehen esan dudana bezala, "El Hombre y la Tierra" programari esker hasi nintzen hegaztiekin. Gainontzeko taldeekin, ba www.ornitho.eus atariari esker. Izan ere, goiko aldean gauzak jartzen ibiltzen zarete, eta ni pixka bat jakingura naizenez gero ba "honekin hasiko gara ea..." Adibidez hala gertatu zen tximeleta eta burruntsiekin. Egia da lehendik baten bat ezagutzen nuela, baina www.ornitho.eus-ekin hasi nintzen hauei arreta gehiago jartzen.

- **Nora joan ohi zara natura behatzera?**

– Denbora gutxi edo lana baldin badaukat, normalean Bilbo ingurura: Arraiz mendia, Pikotamendi ingurua (Artxandatik hurbil) edo bestela itsasadarren ingurua (Abusu inguruan, gaur egun itsasadarren alderik hoberena nire ustez). Denbora gehiago baldin badaukat ba Leioara... edo Arabaraino ere bai (egun osoa baldin baduzu oso ondo dago Aiarako bailara, urtegiak...).

- **Badago joatea bereziki gustatzen zaizun lekuren bat?**

– Gasteizko urtegien ingurua asko gustatzen zait, baina apur bat urrun dagoenez eta normalean hainbeste denbora ez dudanez edukitzen, nire hurbileneko inguruan Arraiz ingurua eta Leioako urtegia nahiago ditut, baita Abra edo Muskiz ere... laburbilduz, ez daukat eremu oso zehatzik.

- **Zer nabarmenduko zenuke leku horietako bakoitzetik?**

– Arabako urtegietan beti espezie asko egoten dira ikusteko, urteko edozein garaitan zoaz eta beti daude hegaztiak. Beti. Eta ez bat edo bi, baizik eta asko. Eta askotan hemen Bilbon topa ditzakezun hegaztietatik ezberdinak dira. Harkaitz-txolarrea daukazu, eta baita hemen arraragoak diren hainbat ahate espezie ere, murgilariak adibidez.

- **Badago egunen bat bereziki gogoan duzuna?**

– Hainbat izan dira, oraintxe bertan ez dut bereziki bat gogoratzen, baina batzuk izan dira. Oso egun on bat Zornotzan enara ipurgorriaren habia bat aurkitu nuena izan zen, AHT-ko zubietan. Ez nuen espero hori hori ikustea. Belatzikieta mendiko igoerantz joan nintzen eta, justu AHT delakoarekin astakeria bat egin duten inguruan, enara ipurgorriak habia egin zuen. Gero beste pertsona bat etorri zen, www.ornitho.eus-eko beste erabiltzaile bat, eta trenaren ibilbidean zehar zeuden zubietan begiratzen ibili zen, habia gehiago topatu zituelarik. Gauza bitxia da hasiera batean hain suntsikorra izango zela zirudien obra horrek, azkenean Euskadin habiagile gisa berria den espezie baten presentzia erraztu izana.

- **Nola ezagutu zenuen www.ornitho.eus plataforma?**

– Nik www.ornitho.cat ezagutzen nuen eta baita Akitaniakoa ere. Izena eman gabe nengoen, bakarrik batzuetan gauzak kontsultatzen nituelako ezagutzen nituen. Baina gero "Hegan"-en idatzi zuten, gogoratzen ez naizen norbaitek emaila bidali zuen, www.ornitho.eus-ekin hasiko zirela hilabete baten buruan edo. Orduan data apuntatu nuen eta ataria zabaldu zenean, izena eman nuen.



• **Zein talde taxonomikoren aipamenak sartzen dituzu?**

– Azken hilabete hauetan batez ere hegaztiak eta landare exotikoak izan dira. Izan ere, hain eguraldi kaskarra egin du ez zegoela ez burruntzirik, ez tximeletarik, narrasti eta anfibiorik ere ez... Baina ni eskuragarri dauden talde taxonomiko guztiak betetzen saiatzen naiz, edo ia denak. Esate baterako, gaueko tximeletak ia ez ditut ukitzen, zeren ez... ezinezkoa da, asko kostatzen zait, nahiz eta hortik baten bat ikusten dudana. Baina, batez ere, hegaztiak, tximeletak, burruntziak eta landare exotikoak dira.

• **Zeintzuk uste duzu direla www.ornitho.eus-en abantailak? Zergatik erabiltzen duzu?**

– Abantaila nagusia zuk datuak sartu eta hor gordeta geratzen direla da, gainontzeko behatzaileek kontsultatu ditzakete eta zuk ere besteen kontsultatu dezakezu. Horrela, inguru eta momentu bakoitzean ikusten denaren ideia bat izan dezakezu.

• **Erabiltzeko erreza dela iruditzen zaizu?**

– Niri hala iruditzen zait. Erraza. Noski, koadrikulen kontuarekin kontu apur batekin ibili behar da, batez ere toki batzuetan, baina printzipioz dinamika erraza da.

• **Nola eta zergatik animatuko zenuke jendea atarian behaketak sartzera?**

– Gaur egun bizitzen ari garen garai hauetan, iskanbila handia dago aldaketa klimatikoarekin, habitaten aldaketa eta abar, gauza asko eraikitzen ari direla eta, ondo legoke jendeak aipamenak sartzea. Horrela, etorkizun batean kontsulta egiten dutenean, "hau aspaldi ez zen ikusten" edo "bai, ikusten zen" edo "lehen gehiago ikusten ziren, orain gutxiago"... esan ahal izateko. Nire ustez, aldaketa mota hauei buruzko informazioa izateko, berebizikoa da informazio ekarpenak egitea. Gertatzen zait hortik joatea eta jendeari entzutea "Lehen sasi-txori asko ikusten ziren eta orain gero eta gutxiago ikusten ditut", baina hainbeste jenderen buruetan dagoen informazio hori ez da inon biltzen, ez da erregistratzen. Ni hasi nintzenean araba-zozo beltzak ez ziren ikusten, baina ahatebeltzak, eiderrak... ikusten ziren. Orain ahatebeltzak eta eiderrak oso gutxi ikusten dira, eta araba-zozo beltza, ordea, gero eta ohikoagoa da. Aldaketa bat egon da. Horregatik uste dut garrantzitsua dela gure behaketak www.ornitho.eus-en sartzea.

• **Behaketak ordenagailutik ala mugikorretik sartu ohi dituzu?**

– Eskola zaharra, ordenagailua (bere koadernotxoa erakusten digu). Ni boligrafoarekin azkarragoa naiz, beste eran tarte luzeagoa behar dut eta batzuetan denbora gutxi daukat.

• **Zein hobekuntza gustatuko litzazuke ikustea www.ornitho.eus-en?**

– Hobekuntza nagusia jende gehiago parte hartzea sartzea litzateke. Informazio gehiago izango genuke, eremu gehiago hartuko genituzke eta datu gehiago egongo lirateke. Hori izango litzateke hobekuntza nagusia. Gainontzekoa, ba beno. Beste taldetxoren bat sartu nahi badute ikasten jarraitzeko, nigatik primeran. Hori bai, nire emazteak esaten dit armiarimak ezta pentsatu ere. Burruntziak eta tximeletak bale, hortik goazela ere esaten dit "hemengo hau, zer izan daiteke?", baina "ezta pentsatu ere armiarmekin hastera" esaten dit.

• **Eta aldizkarian?**

– Aldizkari hau oso ondo pentsatua dago, irakurtzen erraza da, laburra, formatu egokia dauka, argazki politak... Burruntzi gorrien mini-gida oso ondo etorri zitzaidan, izan ere, apur bat berde nenbilen eta asko lagundu zidan.

Agian ondo legoke honetan aritzen garen behatzaile batzuek egiten ditugun ibilbideak sartzea. Aldizkari bakoitzean inguru bat sartu genezake, gauzak ikusteko ibilbideren batekin... Jendeak bere leku eta ibilbideak sartu nahi izatea beharko litzateke, ezta? baina beno. Noski, kontua ez da zehazki jartzea "delako toki honetan halako espeziearen habia dago". Baina bai, adibidez, txinboak ikusteko ibilbide onak.

Nire mini-gida

Araknidoak

Araknido eta koleoptero saproxilikoak
identifikatzeko gida www.ornitho.eus-en.



Argiope bruennichi (Scopoli, 1772)

Gorputzaren luzera: 11-25 mm.

Bizkarralde torazikoa zeta-antzeko ile labur eta gris ugarirekin. Bizkarralde abdominala zeharkako lerro beltzekin (hauetako batzuk lodiak), guno horixka eta zurixkekin txandakatzen direnak.

Hanka arre-argiak, beltzez eraztunduak. Arrak oso ezberdinak dira eta ez dira deskribatzen landan haien identifikazioa zaila delako.



Argiope lobata (Pallas, 1772).

Gorputzaren luzera: 12-26 mm.

Bizkarralde torazikoa zeta-antzeko ile labur eta gris ugarirekin. Bizkarralde abdominalean gingilak ditu alboetan eta atzeko aldean, zuri distiratsu, zuri-grisaxka edo beixak orban beltz batzuekin izan daitezkeenak.

Hankak arre-argiak beltzez eraztunduak. Arrak oso ezberdinak dira eta ez dira deskribatzen landan haien identifikazioa zaila delako.



Araneus diadematus (Linnaeus, 1758).

Gorputzaren luzera: 4-23 mm.

Kolorazio orokorra aldakorra dute, gris-beltzetik hasita, arrea, arre-laranja edo hori-argia ere izan daitekeelarik. Bizkarralde abdominalak hainbat orban zuri ditu. Haietatik luzetara dagoen ilara bat nabarmentzen da, alboan beste zeharkako ilara osatugabe bat duelarik aurreko aldean, gurutze formako irudia osatuz parte honetan. Abdomenaren aurreko aldeak ertz pixka bat eduki dezakete.

Hanka eraztundunak.



Uroctea durandi (Latreille, 1809).

Gorputzaren luzera: 6-15 mm.

Bizkarralde toraziko zirkularra edo ia zirkularra eta, hankak bezala, kolore arre zein beltzekoak. Abdomen beltza, pentagono formakoa, iletsua eta bost orban zurixkekin, aurreko laurak trapezio bat eratuz eta azkenengoa atzeko aldean.

Koleoptero saproxilikoak

www.ornitho.eus



Cerambyx cerdo (Linnaeus, 1758).

Gorputzaren luzera: 25-62 mm.

Kolorazio belzkara, elitroen bizkaraldean eta atzeko muturrean izan ezik, non tonalitate arre edo arre-gorrixka aurkezten duen. Antenaren bigarren segmentua ia zabal bezain luzea.

Bizkaralde toraziko zimurtsua eta alboko protuberantziekin. Elitro azpikonikoak atzeko alderantz, bizkaraldean punteaketa finik ez dauka eta barrualdeko atzeko muturrak punta txiki batean dute amaiera.



Lucanus cervus (Linnaeus, 1758).

Gorputzaren luzera: 25-92 mm.

Kolorazio arre-gorrixka edo belzkara. Antenen punta 4 segmenturekin (oso gutxitan gehiago), argi eta garbi antenako maza osatzen duten gainontzekoak baino handiagoak.

Arrek (ezk. irudia) hipergaratuak dituzte barailak, erdiko hortza puntatik hurbilago duelarik buruarekiko lotunera baino.



Rosalia alpina (Linnaeus, 1758).

Gorputzaren luzera: 15-35 mm.

Kolorazio urdin-grisaxka du eta orban beltzak ditu antenetan (kolore bietako eraztunak txandakatuta), elitroetan (normalean hiru orban elitro bakoitzeko) eta toraxean, nahasezina egiten duena beste espezie batzuekiko.





www.ornitho.eus



aranzadi
zientzia elkartea